

Herri Aldizkaria **Otamotz**

1998ko abendua 43. alea

Herriko
politikariek
solasaldian

QUEVIALIZABEN
**ZINTZU
MINTZU**
ELIARTEN

Santa Lutziak 98

**YRRETXY ETA ZYMARRAGAKO
DENDARIK VRTE BERRI
ZORIONTSYA OPA DIZYTE**

BI ◀▶ TARTEAN

**Z U M A R R A G A
U R R E T X U
D E N D A K**

**HILAREN 30A BAINO LEHEN GURE DENDETAN
EROSKETAREN BAT EGINEZ GERO,
100.000, 75.000 ETA 50.000 PEZETETAKO
GABONETAKO APARTEKO SOLDATEN ZOZKETAN
PARTE HARTZEKO AUKERA DUZU**



1972 ko gabonetan ateratako argazkia, gure lankide Amaia Pildain tartean dagoela, ez omen da batere meioratu kantatzerakoan zer egoingo zaio bada!



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318
Tirada: 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO

Levi's

LIBERTO

Pepe Jeans
LONDON

DIESEL
JEANS AND WORKWEAR

SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo
besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 943 721420
URRETXU

UROLA

ELEKTRATRESNAK

943 720215
S. Esnaola, 2

Faxa: 943 725291
ZUMARRAGA




Legazpi, 5
943 726274
ZUMARRAGA



Urretxu eta Zumarragatarrok ere Aitorrekin

Madrilen Errealaren eta Atletico de Madriden arteko futbol partiduaren inguruan izandako gertaerak direla eta, zeinetan faxista hiltzaile batzuek Aitor Zabaleta jarraitzaile donostiarra erail baitzuten, Urretxu eta Zumarragatik bertara joandako zaletuok Errealeko peñek eginiko ondorengo idatziarekin bat egiten dugu:

1. Aitor euskal herritarra izateagatik eta ez beste ezergatik erail dute. Erabat gaitzesten dugu hilketa honen errealtatea desitxuratzeko edozein ahalegin.
2. Aitorren hiltzaileak ez dira lau lagun, hala sinestarazi nahi diguten arren. Askok dira, eta oso ondo antolatuta daude. Alderdi faxistekin zerikusia izateagatik dira ezagunak herri honetan.
3. Hilketa honetan erantzule asko daude. Kazetariak, zeinek, estatuan duten entzule-kopuru handiaz baliatuta, argi eta garbi kanpainak egin baitituzte, eta euskal herritarren aurkako sentimendu izugarria sortu; politikariak, jendaurrean arduragabekeria handiz egindako adierazpenekin jomugan jarri dituztelako herri honetako biztanleak, euskal herritar izatea beste deliturik izan gabe; kirol arloko buruzagiak, hiltzaileok finantzatu eta sustatu dituztelako, inork ez daki zer lortu nahian...
4. Madrilen sortutako egoera beldurgarria izan zen. Frente Atletico guztiak, besoak altxatuta zituztela, euskal herritarren aurkako kontsigna xenofoboak oihukatu zituen, eta faxismo gogorrenaren garai onenetako eszenifikazio ikaragarria osatu, ezin konta ahala sinbolo faxista erabiliz.
5. Guztiz gaitzesgarria izan zen Frente Atletico delakoak ez ezik, ia-ia estadio osoak ere euskal zaleekin izandako jarraera.
6. Espainiako beste hainbat hiritan ere egokitu zaigu horrelako egoerak jasatea (Zaragoza, Gijon...), eta ikusten zen egunen batean iritsiko zela gertatutakoa.
7. Ez zen inolako segurtasun neurririk izan, eta jendilaje hura nahierara aritu



Goierri eta Eneko nesken areto futboleko partiduan burututako minutuko isilunea

zen, zale txuri-urdinen artean izugarritzko beldurra eraginez.

8. Segurtasun neurri ezin kaskarrago haien erantzuleetatik batek baino gehiagok aurkeztu beharko luke dimisioa.
9. Salatu nahi dugu estadioaren inguruetan zeuden polizia nazionalak erakutsitako utzikeria eta profesionaltasun falta. Ez zuten ezertxo ere egin euskal herritarrek babesteko, segurtasun indarretako kideengatik 10 metro eskasera, jipoiak eta harrikadak jasanagatik.
10. Deitoragarria iruditu zaigu zein erraz utzi duen gaia alde batera Kirol Indarkeriaren aurkako Batzordeak. Kalean gertatu zela esatea da errazena. Dudan jartzen dugu Madrilgoa hemen gertatu balitz erabaki bera hartuko ote zuten.
11. Atletico de Madriden jarrera salatu nahi dugu: Realaren jarraitzaileok goizeko 1:30ak arte egon behar izan ginen estadioaren barruan, baina klubak instalazio guztiak itxi zituen, taberna eta komunak barne, eta, beraz, gutxieneko erosotasunik gabe egon behar izan ginen itxaronaldi luzean. Sarreraren salmentan egindako iruzurra ere salatu nahi dugu: 6.000

pezeta ordaindu genituen hainbat zalek 4.000 ordaindu zituztenen lekuan egon behar izan genuen.

12. Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskal Herriko kirol klubei (Alaves, Osasuna, Eibar, Athletic) erakutsi duten elkartasun izugarria handiagatik; bereziki Athletic eta Athletic zale guztiei. Hain une gogor hauetan harro egoteko modukoak dira jokabide horiek, haurride izateaz harro egotekoak.

Azkenik, Aitor Zabaletaren duintasuna aldarrikatu nahi dugu, erail zuten gizatarrena baino askoz handiagoa delako. Aitor beti izango da gure artean, eta klub eredugarri honen, jokalariren, tekniko guztien eta zuzendaritzakoen sinboloa izango da, guztiez ere erabat harro baikaude. Honen bidez Realeko peñen besarkadarik beroena helarazi nahi diogu Aitorren familiari, Veronica emaztegaiari, eta haren lagun guztiei. Peñarik den artean, ez dira inoiz bakarrik egongo. Gora Aitor-Gora Reala-Gora Euskadi.

(Euskaldunon Egunkariaren erredakzioaren itzulua).

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA



Bizkaiko ikastolen elkarteak ateratako Gabonetako txartela

Konturatu garenerako Gabonak gainean ditugu eta merezitako atsedenaldia hartzeko aukera ere bai. Hala ere ziur gaude oporretan kirola egiten jarraituko duzuela, turroiak sortutako betekadak jeisteko dagoen onena baita.

Olentzero egunean gure etxera abestera etortzea espero dugu, baina etorri aurretik ondo entsaiatu, iaz ez baitzinateen oso fin aritu. Ondo pasa eta Olentzerok guztioi eskatutakoa ekartzea espero dugu.

SOKATIRAKO EMAITZAK

TIRALDIA	DENBORA	A TALDEA	B TALDEA	DENBORA
1	30"	IKASTOLA B	IKASTOLA C	43"
2	-	HAZTEGI D	GAINZURI C	15" 10"
3	-	HAZTEGI C	LA SALLE B	11" 12"
4	21"	IKASTOLA B	GAINZURI D	23"
5	58"	IKASTOLA C	GAINZURI C	18"
6	20" 39"	LA SALLE B	HAZTEGI D	-
7	16"	IKASTOLA B	HAZTEGI C	26"
8	13" 6"	GAINZURI D	HAZTEGI D	-
9	-	LA SALLE B	IKASTOLA C	11" 33"
10	26" 4"	GAINZURI C	HAZTEGI C	-
11	7" 8"	IKASTOLA B	HAZTEGI D	-
12	26"	GAINZURI D	IKASTOLA C	23"
13	15" 9"	GAINZURI C	LA SALLE B	-
14	22"	HAZTEGI C	GAINZURI D	7"
15	18"	IKASTOLA B	GAINZURI C	9"
16	-	HAZTEGI D	IKASTOLA C	5" 7"
17	12" 20"	LA SALLE D	GAINZURI D	-
18	-	HAZTEGI D	HAZTEGI C	9" 8"
19	7"	IKASTOLA B	LA SALLE B	12"
20	12" 6"	IKASTOLA C	HAZTEGI C	-
21	7"	GAINZURI D	GAINZURI C	19"

SAILKAPENA

TALDEA	PUNTUAK
GAINZURI C	14
IKASTOLA C	13
IKASTOLA B	12
LA SALLE B	10
GAINZURI D	9
HAZTEGI C	5
HAZTEGI D	0




ESKUBALOIA (98-12-12)

ALEBIN MUTILAK 6. TXAPELDUN HAZTEGI C
TXAPELDUNORDE HAZTEGI D

ALEBIN MUTILAK 5. TXAPELDUN GAINZURI A
TXAPELDUNORDE D. AGIRRE


ALEBIN NESKAK 6. TXAPELDUN HAZTEGI
TXAPELDUNORDE IKASTOLA B

ALEBIN NESKAK 5. TXAPELDUN HAZTEGI A
TXAPELDUNORDE LA SALLE A



INFANTIL MUTILAK

- 1 IPARRAGIRRE
- 2 OLAZABAL
- 3 HAZTEGI C
- 4 LA SALLE
- 5 HAZTEGI B
- 6 IKASTOLA
- 7 HAZTEGI A



Kirol monitoreentzako Ikastaroak,

Kirol ikastaroak: Generikoa, futbola, atletismo eta pilota.

Edukia: Legazpi -Urretxu - Zumarraga kirol koordinatzaileen egitarauak.

20 orduko ikastaroak

Ikastaroa euskaraz emango da.

Irakaslegoa: Legazpi -Urretxu - Zumarragako kirol irakasleak eta teknikariak.

Ikaslegoa: Legazpi - Urretxu- Zumarragan eskola kirolean dabilzan monitoreak.

Monitore arituak nahiz berriak.

Klubeko kirolariak.

Egutegia: Abenduaren 22, 23, 28, 29 eta 30.

Egunero 2-3 ordu.

Orduak: 22 - 23an arratsaldeko 5etatik 7ak arte/ 28, 29 eta 30ean 9,30etatik 13ak arte

Tokia: Argixaon eta frontoian.

Deialdia: Ikastetxeetako kirol koordinatzaileen bidez iazko monitoreei nahiz aurtien berriak izango direnei.

Klubaren bidez, kirol taldeen inguruan dabilzaneiei.

Matrikula: Izena ematea ikastetxeetan eta kiroldegietan. Dohainik izango da.

Materiala: Ikasle bakoitzari fitxa didaktikoak eta apunteak banatuko zaizkio.

"LEHENENGO LAUHILEKOAN SASKIBALOIAN ARITUKO GARA ETA BIGARRENEAN FUTBOLEAN"

Ale honetarako La Salle ikastetxean DBHko 1. maila ikasten ari diren mutil batzuekin hitz egin dugu. Saskibaloian jokatzeko ari dira, baina ikasturtearen bigarren lauhilekoan futbolean arituko dira. Euren izenak Ladis, Haritz, Zakarias, Borja, Aitor eta Jokin dira eta oso gustura daude euren entrenatzaileekin.

Zer moduz doa taldea?

Orainarte nahiko ondo aritu gara, lau partida irabazi eta bi galdu ditugu. Hala ere, saskibaloian gure mailan ikastolakoak dira onenak. Baina urtarilla edo otsailetik aurrera futbolean jokatu behar dugu eta hortan hobe moldatzen gara. Izan ere, futbola da gehienok atsegin dugun kirola eta atsedenaldietan ere hortan aritzen gara.

Astean zenbat aldiz entrenatzen duzue?

Astearte eta ostiraletan entrenatzen dugu, nahiz eta gutxitan elkartzen garen denok. Gure entrenatzaileak Antonio eta Mikel dira. Asko erakusten digute eta gainera oso jatorrak dira.

Zein da gehien atsegin duzuen kirola?

Futbola da gehien gustatzen zaidana, atletismoa berriz ez dut atsegin (Ladis). Ni ere iritzi berdinekoa naiz (Aritz)

Ni ere bai, esku pilota berriz ez dut gogoko (Zakarias).

Nik kirol guztiak atsegin ditut (Borja).

Nik atletismoa eta saskibaloia ditut gustuko (Aitor).

Futbola eta atletismoa. Mila metroetako lasterketan oso gustura ibiltzen naiz (Jokin).

gehien atsegin dudana (Aritz). Alberto eta El Guerrouj. Azken hau benetan kirolari aparta da (Zakarias).

Nik atsegin dudana taldea Barça da, Rivaldo eta Figo dira gustuko ditudanak.

Saskibaloian Barkley eta Bennet dira onenak (Borja).

Jordan eta Bird ditut gustuko (Aitor).

Nire Kirolaririk gogokoenak Sa Pinto, Kovacevic eta Jordan dira (Jokin).

"Gabonetan Gazte

Astean parte hartzeko asmoa dugu"

Zein kirolari dituzue gustuko?

Nire kirolaririk gogokoenak Jordan eta De Pedro dira (Ladis). Nik atezain postua gogoko dut eta Alberto da

Bukatzeko, gabonetan ere kirola egiteko asmorik al duzue?


Bai, noski. Kirola egitea asko atsegin dugu eta eskola kirolatik kanpo ere aritzen gara. Oporretarako antolatu den Gazte Astean futbol txapelketan parte hartzeko asmoa dugu.



Ladis, Aitor, Borja, Haritz, Zakarias eta Jokin


Ba al duzu BAI EUSKARARI kanpainaren berri? Ekintzaren batetan parte hartu behar al duzu?

Zenbat buru hainbat aburu



Aingeru Legorburu

Herrian zerbati antolatzen baldin bada parte hartzeko asmoa dut. Euskararen alde egiten den guztia onuragarria iruditzen zait eta Donostiara ere joango naiz.



Juan Ignazio Mendiola

Ez dut orainarte kanpainaren berri izan. Herrian zer edo zer antolatzen bada parte hartuk dut. Beharbada Anoetara ere joango naiz.



Amaia Mao

Karteletan ikusi dut eta eskolan ere kanpainaren berri izan dugu. Anoetara joango naizen ez dakit, gurasoek esaten dutena ikusi behar.



Miren Josu Begiristain

Izan dut kanpainaren berri. Zabaltzeko ahaleginak egin eta guztiok inplikatu beharko ginateke. Parte hartzeko asmoa dut, euskara gure hizkuntza nazionala baita.



Andoni Garzia

Ez nuen "Bai Euskarari" kanpainaren berri. Ondo iruditzen zait euskararen aldeko gauzak antolatzea eta ahal badut joango naiz Anoetara.



Montse Alkorta

Ikastolako langilea naiz eta herri mailako antolaketa parte hartzen ari gara. Printzipioz Anoetara joango naiz, baina erabilera suspertzeko herrian zerbait gehiago egin beharko litzateke. Ez da nahikoa akordioa sinatzearekin.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

SANTA LUTZITAKO FERIA 98

buzkantza eta errezil sagar lehiaketak

Urtetik urtera gero eta lehiaketa gehiago burutzen dira Santa Lutzi egunean zein aurreko egunetan. Nahiz eta lehen herri bakoitzak bere lehiaketak antolatzaren zituen, egun bi herrien arteko lan-

kidetza gero eta nabariagoa da. Honela, kapoi eta oilasko lehiaketak bi herrien artean antolatzen dira. Ea aurrerantzean ere lankidetza honek bere fruituak ematen dituen.


Jose Maria Busca Isusiren omenezko buzkantza lehiaketak Santa Lutzia feriaren barne leku garran-tzitsua duen ekintza da. Lehenago feriaren egun berberan ospatzen bazen ere, azken bi urte hauetan astebete aurreratu da nabarmendu nahian. Iñaki Campos ormaiztegiarrak urte asko daramatza buzkantza lehiaketan parte hartzen. Askotan irabazi duen arren, 94. urte ezkerotik garaipenik lortu gabea zen eta aurtengo berriro ere lehen saria lortu du.

Hobera egin al du lehiaketak urte hauetan guztietan zehar?

Bai, nik uste lehen baino buzkantza hobeak aurkeztzen direla eta lehiaketaren egun aldaketa ere onuragarria izan dela. Santa Lutzi egunean ospatzen zenean lehiaketa galdu xamarra zegoen eta egun propioa merezi zuen.

Lehiaketa hainbestetan irabazteko sekreturen bat izango duzu ...

Sekreturik ez dago hemen, denok ere antzeri egiten ditugu. Kontua porrua, tipula eta gainontzeko osagaiak ondo aukeratu eta buzkantza mimos egitea da.



Zorteak ere garrantzia al du?

Egia esan, bai. Lehenengo sailkapen txanda bat egoten da eta hemendik finalera pasatzeko zortea beharrezkoa da. Izan ere norberak egindako buzkantzen talde berean fuerte xamarra den buzkantzen bat suertatu ezkerotik epailea buzkantza horren zaporea ahotik kendu ezinik gelditzen da.

Gero, gurea dastatzen duenean ez dio

zaporea nabaritzen.

Zer da Santa Lutzi egun honetan gehien atsegin duzuna?

Dena atsegin dut, baina batez ere animaliak. Ni neu ere baserritarra naiz eta beraz abereak asko begiratzen ditut. Esan beharra dut kalidade handiko abereak daudela, urtetik urtera hobetzen doala uste dut.

☎ 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

ecu

☎ 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

iker

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

**SUKALDE
ERAKUSKETA**

FAGOR

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU



Maria Isabel Zumalakarregi gabiriarrak Errezil Sagar Lehiaketan parte hartzen du. Nahiz eta Urretxu-Zumarragatik hain gertu bizi, hirutan soilik etorri da lehiaketara; baina bitan bigarren postua lortu eta iaz garaile suertatu zen.

Zure sagarrondoek zerbait berezia izango dute...

Lur onean daude, ondo zaintzen ditugu eta klase onekoak dira. Errezil sagar klase ona eta gaztea dugu: 200 sagarrondo inguru ditugu eta zaharrenek 14 urte dituzte. Bestalde, beste fruitarbol batzuk ere badiugu, baina ez sagarrondoak bezainbeste.

Lan handia ematen al dute sagarrondoek?

Lan handia egin behar da, bai. Lurra maneatu beharra dago lehenago, gero landarea aldatu eta laupabost urtetan lurra maneatu urtero, ondo ongarritu eta podatu. Bestalde, urtean pare bat aldiz arbola tratatu beharra dago.

Lan guzti honek behar haina emaitza ematen al du?

Egia esan denborapasa moduan egiten dugu. Guk sagar onenak jaso eta gainontzeak erortzen uzten ditugu. Zumarragako


gazte talde bat etortzen da baserrira, denak bildu eta sagardoa egiten dute. Gero erdibarnatu egiten dugu. Bildutako sagar gehienak etxetik saltzen ditugu, baina Santo Tomaseta Azpeitiara, Gabonetan Ordiziarra eta Santa Lutzitara ere etortzen gara.

Gabiriko sagarrek ia urtero irabazten dute, zerbait berezia al du Gabiriko lurrak?

Nik uste baietz. Castillo sukaldari beasaindarrak esan ohi zuen Gabiriko errezil sagarrak onenak zirela. Izenez Errezilgoak dira, baina Gabirikoak hobeak dira. Iaz Azpeitin saria irabazi genuen, errezildar bat etorri zitzaidan eta zera esan zidan "Gu Errezildik etorri eta zuei saria eman. Ez dago eskubiderik!"

Epaileek zer hartzen dute kontutan?

Sagarren itxura hartzen dute kontutan, ez dituzte probatzen. Nik uste probatu ere egin beharko lituzketeela.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

☎ 725682
722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA

GORETTI

JANTZIDENDA

**MODAKO
ARROPAK**

Secundino Esnaola, 34 ☎ 943 724996

PLAZAOLA

ITURGINTZA


Bide-Zar, 5 ☎ 943 721370 ZUMARRAGA



Aurtengo Santa Lutzietan, urtero bezala, izan dugu zer ikusi eta zer daztatu. Hala ere, aurreko egunetan ere beste zenbait ekintza izan ziren: buzkantza lehiaketa, Elorriagari omenaldia eta Errioxa Arabarreko ardo lehiaketa esaterako. Bezperan La Salle ikastetxeko aretoan bertso jaialdi paregabea izan genuen, non Unai Iturriaga primeran aritu zen. Baina ez zen bakarrik aritu: Sarasua, Mendiluze eta Euskitzek ere bere maila erakutsi ziguten.

Santalutzi egunean igandea zela eta eguraldi ona lagun, jende andana inguratu zen gure bi herriotara. Egunean zehar antolaturiko ekintza ezberdinetan parte hartu ondoren, ilunabarrean parrandarako astia ere hartu zuen jendeak.





Lehiaketa ezberdinetan saritutakoen zerrenda:

Zumarraga Barazki lehiaketa: 1. J.M. Zabalegi

2. Jexux Artola

Fruta Lehiaketa: 1. Manu Iradi

2. Joxe Etxeberria

Errezil sagar lehiaketa: 1. Maria Etxezarreta

2. M. I. Zumalakarregi

Zumarragako loterik onena: J.J. Aranburu

Abere lehiaketak: A Atala Pottoka arraza

moxalik onena, Jon Alberdirena

behorrik onena, Zaldibia pottoka elkartearena

zaldirik onena, J. L. Elorduirena

B Atala Pottoka arraza

moxalik onena, Zaldibia pottoka elkartearena

zaldirik onena, Luis Arregirena

haragitarako moxalik onena, Indar anaiak

haragitarako behorrik onena, Indar anaiak

haragitarako zaldirik onena, Indar anaiak

Urretxu Ezti lehiaketa: 1. Domingo Iturbe

2. Juan Iñurritegi

Errioxa Arabarreko ardo lehiaketa: 1. Arabarte bodegak

Barazki lehiaketa: 1. Tomas Larrañaga

2. Isabel Izagirre (Urretxu)

Fruta lehiaketa: 1. Kontxi Izagirre

2. Miren Agirrezabala

Urretxuko loterik onena: Elena Niño

Barazki eta fruta aurkezpen onena: Tomas Larrañaga

Bi Herrien artean antolaturiko lehiaketak

Euskal arrazako kapoiak: 1. M. K. Uranga

2. Xabier Goikoetxea

Arraza arrunteko kapoiak: 1. M. T. Albisu

2. Joxe Ugartemendia

Euskal arrazako oilaskoak: 1. Maritxu Alberdi

2. M.L. Zuriarrain

Arraza arrunteko oliaskoak: 1. Teresa Madinabeitia

2. Anttoni Pildain (Urretxu)

Zumarraga Urretxuko oilasko parerik onena. Anttoni Pildain

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu
erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Farmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 **URRETUXU** ☎ 72 25 13



Labeaga, 2 **URRETUXU** ☎ 943 724482



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 **URRETUXU**



“Bai euskarari” kanpainaren aurkezpena Urretxun

Gehienok jakingo duzuen bezala, Kontseiluak “Bai euskarari” kanpaina antolatu du. Honen helburua euskararen normalizazioak daraman abiada arintzea da. Izan ere, egungo abidan 200 urte beharko lirake normalizaziora heltzeko eta urte hauetan guztietan 1000 hizkuntza desagertuko direla aurrikusi da. Honi aurre egiteko akordio sozial eta politikoa bultzatu nahi da. Helburu hau gauzatzeko halako ikerketa bat aurrikusten da, honen

lehenengo zirriborro bat osatua dagoelarik. Azterketa honetan euskararen egoerari buruzko diagnostiko bat egiten da, ahuleziak, gabeziak, eta hauek behar dituzten konponbideak biltzen dituelarik.

Egun hauetan aurrera eramaten ari den kanpaina 200.000 kartel banatu dira Euskal herrian zehar, esku orriak banatu, kamisetak eta pinak salgai jarri... Ekitaldi nagusia hilaren 26an izango da. Euskal herriko 5 futbol zelai euskaltzaleez bete nahi ditu Kontseiluak. Hau dela eta, herrian autobusak antolatu dira Anoetara joateko.

Zumarragako eskaparate lehiaketaren irabazleak

Abenduaren 18an eman ziren ezagutzera Zumarragako udalak antolatzen duen eskaparate lehiaketaren garaileak. Epaimahaia Antton Arbulu alkateak, Jesus Iturbe zinegotziak, Helena Biurrunek, Fernando de la Fuentek, Marisa Iturbe dekoratzaileak eta Jose Luis Gonzalezek osatu dute. Aurten aurkeztu diren 30 denden artean, hauek izan dira sarituak:

1. Nekotz albaitaritza klinika:

Epaimahaiaren ustez dendan salgai dituen produktuak oso egoera egokian erabili ditu Gabonetako giroa sortzeko. 30.000 pezeta eta garaikurra jaso ditu.

2. Novedades Mentxu y Jone:

Argiak oso era egokian erabili ditu. Saria, 20.000 pezeta eta garaikurra.


3. Prudencio Aranburu harategia:


Bere produktuak irudimenez eta originaltasunez erabili izanagatik. Ezaugarri hau urtero ematen da. 10.000 pezeta eta garaikurraz osatutako saria jaso du.

Epaimahaiaren ustez aurtengo maila altua izan da. Hau dela eta beste bi sari ematea erabaki du, ohorezko sari bezala. Bata Gau Txori tabernari eta bestea Foto video Mara Juleni.

Alfredo Mostajo auto gidariari omenaldia

Mostajok estatu mailako Citroen ZX txapelketa irabazi du aurten. Legazpin jaio zen arren, egun Urretxun bizi da. Hau dela eta, Urretxu eta Legazpiko udalek omenaldia eskaini zioten hilaren 16an Urretxuko udaletxean. Mostajok eskerrak eman zizkien bi udalei eta honakoa azpimarratu zuen: “Niretzat aurten politena urte bukaera izan da. Azken lasterketan, Jerezen, 6 lehenengoen artean egin beharra nuen eta ordurarte bertan oso emaitza txarrak izan nuen. Oso garrantzitsua izan da, txapelketa jokoan nuela, Jerezen irabaztea”. Alfredok ez du zirkuituetatik ateratzeko asmorik, baina ziurrenik datorren urtean txapelketa ezberdin batean parte hartuko du auto berri batekin. Bere trebeziaz gozatu nahi duenak hilaren 27an Beasaingo “Lau Baserrietako” igoran ikusi ahal izango du. Bestalde, bezperan bere autoa Zuhaizti taberna aurreko zelaian ikusgai izango da.





Ezkerretik eskubira Mertxe, (13 urte kartzelan), Gonzalo, (5 urte) eta Pili (5 urte)

Senideak, Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuen fameliartekoak biltzen dituen erakundeak mozio bat aurkeztu du duela gutxi Ezkio, Urretxu eta Zumarragako udaletxeetan, Espainiako espetxeetan sakabanaturik dauden euskal presoak Euskal herriratu ditzan eskatuz Espainiako gobernuari. Mozio hau onartu egin zuten alderdi guztiek P.P.k ezik. Orain Senideak erakundeak datorren abenduaren 31an egingo diren mobilizazioetara etor dadin dei bat zabaltzen die herri-tar guztiei, dispersioak suposatzen duen sufrimenduekin lehen bait lehen amai-tzeko asmoarekin. Argi utziaz beti ere eskatzen dutena egun dagoen legedia bete-tzea baino ez dela. Mobilizazioek esandako abenduaren 31an egingo dira, Ezkion arratsaldeko 6,30etan; Zumarragan arratsaldeko 7etan eta Urretxun arratsaldeko 7,30etan.



Mairi emakume elkartekoak Tele5n izan ziren Maria Teresa Camposek aurkezten duen "Dia a dia" saioa ikusten. Euren esanetan primeran pasa zuten eta telebista-koek oso gustura jan zituzten hemendik eramandako babarrun eta odolkiak. Argi dago hala dela, Martxorako berririo gonbidatu bait dituzte. Ordurako sagardotegi afaria prestatu beharko diete!.

CHIARA

**Etzerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39 ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306
ZUMARRAGA

Zer diote Urretxu eta Zumarragako politikariek gobernu berria eta bake prozesuari buruz?

Iraila aldera alderdi abertzaleek eta Ezker Batuak Lizarrako akordioaren berri eman ziguten. ETak su etena iragarri eta bake prozesu bat hastear zegoela zirudien. Ondoren, urriak 25ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan genituen eta ia bi hilabete beranduago alderdi abertzaleak gobernu berria osatzeko ados jarri dira. Egoera berri hau dela eta, Otamotzek alderdi politiko ezberdinek herrian dituzten zenbait ordezkariekin hitz egin du. Honetarako Zintzo-Mintzoren egoitzara etortzeko gonbitea luzatu genien. EAJ, EH, PSE/EE eta EBko ordezkariak bildu ziren eta solasaldian iritzi ezberdinak azaltzeko aukera izan zuten. EAKo ordezkaria azken unean ezin izan zen etorri; baina bere alderdiaren postura luzatu digu. PPri ere gonbitea luzatu zitzaion baina ez zion erantzun. Hizketaldiak hiru puntu nagusi izan zituen:

1. Gobernu berria: zergatik gobernu hau eta zergatik orain.
2. Gizartearen papera baketze prozesuan.
3. Nola inplikatu estatu mailako alderdiak eta gizartea bakeratze prozesuan.

1. Gobernu berria

EAJ (Jesús Iturbe)

Gobernu berri hau su etena eta ondoren hasitako bake prozesuaren ondorioa da. Oraingo helburu nagusia erabateko bakea lortzea da eta horretarako gure alderdiak egin ahalak egingo ditu. EHk borondatea erakutsi du eta elkarrekin lan egiteko aukera dugu, baina PSE eta PP partaide izateko lan egiten jarraituko dugu. Hala ere, aurrera egiteko borondaterik ez badute kanpoan geldituko dira.

IU/EB:

“Lizarrako akordioa estatu osoko gizartean zabaltzea da gure alderdiaren lana.”

PSE/EE (Paco Parra)

PSE ez dago gobernuan, gobernu osoa osatzeko elkarriketetan parlamentuaren esku egon beharko lirakekeen gaiei eman zaielako garrantzia eta ez gobernu gaiei. Bestalde, EHri instituzioetan parte hartzeko deialdia egiten diogu. Konstituzioa eta estatutua herriak onartuak dira eta aldatu bnehar badira beraiek azaltzen duten bidetik aldatu behar dira. Bakea lortzeko foroa ez da Euskal Herria soilik, baita estatu espainiarra eta Europa ere.

IU/EB (Martín Otxoa)

Orain arteko gobernuak eskuindarrak izan dira eta oraingoa ere halakoa izango da. EA eta EAJ enbor bereko adarrak dira. Gobernu honek ere ez du langileria-aren alde egingo. Gobernu berrian egoteko eskeintzak izan omen ditugu, baina ez

genuen ezkerreko “partxe” hutsa izan nahi. Gure programa aintzakotzat hartuko balute, gobernuaren partaide izango ginateke. Lehen ere oposizioa ginen, eta orain ere oposizioa egiten jarraituko dugu.

EH (Jon Mikel Irigoras)

Momentu historikoan gaude eta gobernu berriak bide berriak jorratu behar ditu. Gizarteak argi du estatutua agortua

dagoela eta eredu berri bat lortu behar dugu. Horretarako udal batzarren erakundea proposatzen dugu. Euskal Herriko udal guztiak ordezkatu eta 6 herrialdeak batuko lituzkeen instituzioa hain zuzen ere. Baskongadetako gober-

nuak 3 herrialde besterik ordezkatzeko ez dituenek, ez gara bertan sartu.

EA (Martin Aranburu)


Osatu den gehiengo demokratikoki hautatutako gehiengo bat da, beraz edozein gobernu duen legitimazio berdina dauka. Alderdi hauen artean bakeratze prozesua aurrera eramateko erabateko adostasuna dagoenez, gobernu honek paper

garrantzitsua joka dezake Madril. Gainera ikuspegi abertzaletik burutuko da Eusko Jaurlaritzako politika eta honek Euskadin jende askori ikusi araziko dio abertzaleok ez diogula inori ezer inposatu nahi.

PSE/EE:

“Bakea lortzeko foroa ez da Euskal Herria soilik, baita estatu espainiarra eta Europa ere”





2. Gizartearen papera bake prozesuan

EAJ: Egoera lasaitu beharrean nahastu egin da. Bakea denon artean lortu behar dugu, EA eta EHrekin akordioak lortu baditugu ere, bakarrik joateak ez garamatza inora. Denon artean bakea lortzeko guztiok zerbait eskeini beharko dugu.

EH:

“Estatua bake prozesuan inplikatzeko, lehenengo bere buruzagiek jarrera aldatu beharra dute”

PSE/EE: Herri hau oso plurala da eta kontuz ibili behar gara ondokoa ez mintzeko. Gobernu berria abertzalea da, ni ez naiz antiabertzalea, baina gobernu berriari abertzale eta ez abertzaleen arteko zatiketa ez egitea eskatuko nioke. Euskal herritar guztion gobernu izatea eta ez abertzaleena bakarrik.

IU/EB: Lizarrako akordioa onartu genuenean benetan onartu genuen eta babes osoa emango diogu bakea lortzeko ekimen guztiak bultzatuz. Zenbait gizarte mugimenduek sinatu zuten akordioa eta alderdi politikoek hauekin batera lan egin behar dugu. Ahal duguna egingo dugu gizarteak akordioan inplikatzeko.

EH: Talde ezberdinek sinatu zuten Lizarrako akordioa, gizartearen islada da eta ilusio handia sortu du. Baina zenbaitetik beti dute aitzakiaren bat: lehen bahiketak... orain euskal gizartearen pluralitatea. Baina pluralitatea estatu mailan zein Euskal Herrian dago. Estatuaren pluralitatea onartu beharrak min egiten die.

EA: Euskal gizarteak bake prozesuan inplikatu beharra du, baina ardatza alderdi politikoek eta agian sindikatuak eraman beharko lukete. Gizarteak alderdi politikoan pausua era zorrotzean aztertu beharko lituzke, gaizki egindako pausua salatuz eta bake prozesuaren aldeko ekin-tzak plazaratuz. Une honetan gizarteak PP salatu behar du, interesatzen ez zaion bake prozesua geldiarazten ari delako. Aldi berean PPren aurkako ekintzak ere gaitzetsi beharko lituzke.

3. Estatua nola inplikatu

EAJ: Ahalmen handiko herri bat garelako erakutsi behar dugu. Produktzioari dago-kionez maila onean gaude eta indarkeriarik gabe are hobe arituko gara. Kanpoan gure balioaz jabetzea lortzen badugu, nahi dugun guztian laguntza lortuko dugu.

PSE/EE: Hemendik kanpo oso ondo onartzen gaituzte. PSEk ez du autodeter-

minazio arazorik, baina gainontzekoek honen inguruan arazoren bat ikusten badute, beharrezko pausua eman beharko dira. Guzti hau legeak eskeintzen duten bidetik, noski.

IU/EB: Guk Lizarrako akordioa sinatu genuen eta IUren babesa dugu. Lizarrako akordioa estatuko osoko gizartearen zabal-tzea da gure alderdiaren lana. Hauteskundeetan izandako jeitsierak ez du aldatuko IU/EBren iritzia Lizarrako akordioari buruz.

EH: Estatua bake prozesuan inplikatzeko, lehenengo bere buruzagiek jarrera aldatu beharra dute. Guk ez dugu ikusten jarrera

hau aldatuko denik, lehen biolentzia zen, gero... beti dago aitzakiaren bat. Euskal Herriaren autodeterminazio nahiak gobernu beldurtzen du.

EAJ:

“Kanpoan gure balioaz jabetzea lortzen badugu, nahi dugun guztian laguntza lortuko dugu”

EA: Hasteko, komunikabideek hemen gertatzen denari buruzko informazio faltsua eskeintzeari utzi behar diote. Gehiengoa negoziazioaren alde dago eta jarrera demokratikoa duenak hau onartu beharra du. Hemen ez dugu ezer inposatu nahi, hori ulertarazten badugu akordioaren aldeko mugimenduak ere suspertuko dira Espainian.



**Nekane
Tabernaria**

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Ileapaintzailea

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Ahal dudanean kontzertuetara joan

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Gabonetarako presoak etxean egotea

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Carlos Checa

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Lana egiteko

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Gustura sentitzen naiz

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?

Begietara

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Kontzertuak egiteko musika areto bat eta aparkalekuak

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Santa Barbara

✓Urretxun ezik non biziko zinateke gustura?

Andaluzian edo Errioxan

✓Zein da duzun ohiturarik okerrrena?

Beti presaka ibiltzea

✓Bete gabeko amets bat?

Jaraman karrera kotxe batekin ibiltzea

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

...eta ipintzeko!!

✓Kantu bat.

Xabier Leteren "Xalbadorren heriotzean"

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Puntualitatea

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Esker oneko jendea

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Familiarengatik eta nere ingurukoengatik

✓Gaua ala eguna?

Biak

✓Lo egiteko zer?

Lasaitasuna

✓Gustuko janari bat?


"Peli"k prestatzen dituen entsaldak

✓Ura, ala...

Ardo goxo bat

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Beti esandakoa betetzen saiatzen naiz



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75



Zorionak Ander!
Orain ere pikaro, aitzakia ederra duzu opariak eskatzeko eta gozokiz betetzeko, aprobetxatu! Ondo pasa zure anaia Jonen partetik.



Zorionak Ana!!
Iluntasunaren erdian ia-ia ezin zaitugu ikusi, hala ere beti bezain irrifartsu jarraitzen duzula argi da.



Aupa Hodei, dagoeneko Egaña, Euskitze eta Sarasua beldurrak airean egongo dituk. Hik segi horrela eta lortuko duk.



Ioritz, futbolearen zer moduz zabilatz? Egunen batean hemendik pasa beharko zara zure izenaren jatorria azaltzera. **Zorionak!**

Zorionak!



Jabier ez al duzu inoiz arnasik hartu behar? Ondo dago Pantera Rosa imitatzeari, baina ito egongo zara. **Zorionak!!**



Luis Mari, apaiz itxura hartu ditzugu. **Zorionak** Zumarragako katekisten partez! Urte askotarakorrum, amen.



Arantza, lasai, senarrak ez du etxetik alde egin eta. Donostia aldean ikusi dute zure urtebetetzerako txirlak biltzen.



Iñigo oraingoa ere ama hasarratu duzu! Noiz utzi behar diozu bihurrikeriak egiteari? Hala ere ziur zeure oparia jasoko duzula. **Zorionak!!**



Tamara, joan al zinen Santa Lutzitan azokara? Orduan ere eskolan bezala astakiloen artean egongo zinen. **Zorionak!!**



Udane, badirudi kezkatuta zaudela. Lasai, Olentzero zurekin ere ondo portatuko da eta. **Zorionak** familia eta lagunengatik.



Martina, zu bai neska fina eta dantzarako arina! **Zorionak** familiaren partetik eta segi ezazu beti bezain irrifartsu.



Maria Jesus, Joxe bakarrik falta zaizu Belengo aterpea osatzeko. Gu ondolan egongo gara ikatza jasotzen. **Zorionak!!**



Nagore pixka bat beranduago jaito bazina zure ama urte berriko parrandan harrapatuko zenuke. **Zorionak!!** (bikote parrandazalea).



Zorionak Andoni! Badakigu triste zaudela neska lagunik ez duzula, baina ez da horren besterako motel! Itxaron urte pare bat eta elkarrekin joango gara Arantzazura praile.



Zorionak Kontxita Eskerrak aterki azpian zauden beste la txitak bezain blai bukatuko zenuke.



Zorionak Eneko egun eder bat pasa ezazu zure guraso eta Landerrekin. Azkenean gogoratu gara!!

Zorionak Patxi!! Hemen ere jakin dugu ezkondu behar zarela. Otamotz ez da Lecturas (ezta beharrik ere), baina Urdangarin bezain ezaguna egin zara.



Alponto... zer ari haiz albo batera begira, oraingoa ere intereseko zer edo zer ikusiko huen!! **Zorionak** koadrilaren eta hirukote parrandazalearen partez.

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON GURE IRAKURLE ETA IRAGARLE GUZTIEI!!



**Gotzon
Agirrezabal**

Tf.- 943 76 72 52 -Faxa

ORDUTEGIA
astelehenetik zapatara:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00.



Ehunak eta oihalak

Tapizeriak

Kortinak

Nordikoak

Era guztietako etxerako gaiak




Amillaga 5ean denda berria duzu

Renault-en ondoan

ONDO PASA GABONAK ETA URTE BERRI ON!

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA - FLORIDA - GAU-MOTZ
GOIKO KALE - LAKET - NAVARRO - OSABA